

PRENTSA-OHARRA

Zientzia Klean erakusketa hartuko du Azkoitia, eguneroko zientzia jendarteratzeko

Zientzia Klean, egunerokoan erabiltzen edo kontsumitzen ditugun produktuen atzean dagoen zientzia azaltzen duen erakusketa, ikusgai egongo da Azkoitiko parrokiaren aurreko plazan azaroaren 18tik 28ra.

Herriko ikastetxeek eta 'Herrixen' Azkoitiko Dendarien Elkarteak ere parte hartuko dute Azkoitiko Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatutako ekimen honetan.

Azkoitian, 2025eko azaroaren 12an. Nola harrotzen da ogia? Zer dago barra kodeen atzean? Nola funtzionatzen du sukaldeko plaka batek? Gure egunerokotasunaren parte diren kontu hauei eta beste batzuei erantzuteko iritsiko da *Zientzia Klean* erakusketa Azkoitira, zientziaren ezagutza jendartean zabalduz.

Formatu handiko 11 infografia dira erakutsiko direnak, euskaraz eginak, eta **azaroaren 18tik 28ra ikusi ahal izango dira** eliz aurreko plazan. [Azkoitiko Udalak](#) eta [EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) antolatu dute ekimena.

Ilustrazioetan egunero kontsumitzen edo erabiltzen ditugun produktuetan dagoen zientzia erakusten da. Beste batzuen artean, esate baterako, telefono mugikorren, barra kodeen, autoen, txertoen edo sukaldeko plaken funtzionamendua azaltzen da.

Oso ohikoak diren beste elementu eta jakiei buruzko informazio zientifikoa ere aurkituko dute erakusketara hurbiltzen direnek, hala nola ogia, jogurta, iturriko ura, garagardoa, zuhaitzen hostoak eta frutari buruzkoa.

Panel bakoitzean dagoen QR kodeari esker [infografia guztiak deskargatu](#) daitezke, euskaraz zein erdaraz.

Zientzia ikasgeletan eta dendetan

Kalean egingo den erakusketatik haratago doa proiektua, eta herriko ikastetxeak eta dendariak ere tartean izango dira.

Horrela, 'Herrixen' Azkoitiko Dendarien Elkartearekin elkarlanean, infografia berberak poster formatuan ipiniko dira dendetan. Ekimenean parte hartzen duen establezimendu bakoitzak bere produktuekin edo sektorearekin zerikusia duen poster bat jarriko du egun horietan. Okindegietan, esate baterako, ogiaren zientziari buruzko infografia ikusiko da.

Bestalde, Azkoitiko ikastetxeek euren hezkuntza jardueran sartuko dute erakusketa. Ikasleek parte hartu ahal izango dute infografietan oinarritutako galdetegi bati erantzunez. Eta herriko Udalak tablet bat zozketatuko du galdera guztiei zuzen erantzuten dietenen artean.

Zientzia Kalean Euskal Herriko Unibertsitatearen Kultura Zientifikoko Katedraren eta [Nafarroako Unibertsitateko Zientzia Museoaren](#) egitasmoa da. Azken hilabeteotan erakusketa Beasainen, Ordizian edo Abaltzisketan egon da, besteak beste.

Zientzia Kalean bezalako ekimenekin, EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak ["zientzia gizartearen txoko eta ertz guztietara hubiltzeko"](#) helburua indarberritzen du, zientziaren ezagutza ahalik eta jende gehiagorentzat eskuragarri eginez. Konpromiso hau urriaren 17an berretsi zuen bere zuzendariak, Iker Badiolak, Katedraren 15. urteurrenaren ekitaldian.

Azkoitia acoge la exposición Zientzia Kalean para acercar la ciencia cotidiana al público

La exposición Zientzia Kalean, que explica la ciencia que hay detrás de productos que consumimos o utilizamos a diario, se expondrá del 18 al 28 de noviembre en la plaza situada frente a la parroquia de Azkoitia

Los centros escolares del municipio y la Asociación de Comercios de Azkoitia 'Herrixen' también participarán en esta iniciativa organizada por el Ayuntamiento de Azkoitia y la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco

Azkoitia, 12 de noviembre de 2025. ¿Cómo sube el pan? ¿Qué hay detrás de un código de barras? ¿Cómo funciona una placa de inducción? La exposición *Zientzia Kalean* llega a Azkoitia para responder a estas y otras cuestiones que forman parte de la vida diaria y acercar el conocimiento científico al público.

La muestra, compuesta por 11 infografías de gran formato, realizadas en euskera, **podrá visitarse del 18 al 28 de noviembre** en la plaza situada frente a la iglesia de la localidad guipuzcoana. La iniciativa está organizada por el [Ayuntamiento de Azkoitia](#) y la [Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco](#).

En las ilustraciones se muestra la ciencia presente en productos que consumimos a diario o utilizamos en nuestra vida cotidiana. Entre otras cuestiones, se explica, por ejemplo, el funcionamiento de teléfonos móviles, códigos de barras, automóviles, vacunas o placas de cocina.

Quienes visiten la exposición encontrarán también información científica contada de forma amena sobre alimentos y elementos cotidianos como el pan, el yogur, el agua del grifo, la cerveza, las hojas de los árboles o la fruta. Cada panel incluye un código QR que permite [descargar las infografías](#) tanto en euskera como en castellano.

La ciencia entra en aulas y comercios

La iniciativa va más allá de la exposición en la vía pública y también involucrará a centros escolares y comercios. En colaboración con la Asociación de Comercios 'Herrixen', también se colocarán estas mismas infografías en formato póster en distintas tiendas de la localidad. Cada establecimiento participante expondrá durante esos días un cartel relacionado con

alguno de sus productos o sector. En algunas panaderías, por ejemplo, podrá verse la infografía dedicada a la ciencia del pan.

Por su parte, los tres centros escolares del municipio incorporarán la exposición a su actividad educativa. El alumnado podrá participar en la iniciativa rellenando un cuestionario basado en la información recogida en las infografías. Además, el Ayuntamiento sorteará una tablet entre quienes respondan de manera correcta a todas las preguntas.

Zientzia Kalean es una iniciativa de la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco y del [Museo de la Ciencia de la Universidad de Navarra](#). En los últimos meses, la exposición ha recorrido Beasain, Ordizia o Abaltzisketa, entre otras localidades guipuzcoanas.

Con iniciativas como *Zientzia Kalean*, la Cátedra de Cultura Científica de la EHU busca reforzar su objetivo de [“acercar la ciencia a todos los rincones y orillas de la sociedad y posibilitar la accesibilidad del conocimiento a un mayor número de personas”](#). Un compromiso que subrayó su director, Iker Badiola, durante la celebración del decimoquinto aniversario de la Cátedra el pasado 17 de octubre.